



ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN  
SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEA,  
ESKOLA-JARDUERA PRESENTZIALA  
ETETEKO ALDIARI DAGOKION JANTOKI-  
BEKEN ZENBATEKOA ORDAINTZEARI  
BURUZKOA.

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketetarako laguntzen deialdiaren helburua da hezkuntza berdintasun-egoeran eskuratzeko dauden mugak edo desorekak konpentsatzea. Hala, laguntza jaso dezaketen osagaien artean dago eskolako jantoki-zerbitzua, derrigorrezko irakaskuntza-mailetako eta hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat, baldin eta erabiltzen badute.

Covid-19k sortutako osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetako eskola-jarduera presentziala aldi baterako etetea eragin du, eta, ondorioz, eskola-jantokiko zerbitzua etetea.

Eragin handiena jasan dezaketen familiei arreta emateko, jantoki-zerbitzua etenda dagoen bitartean laguntza horiek **mantendu egingo dira**.

Hau da, eskola-jarduera presentziala eteten den bitartean, eta, beraz, jantoki-zerbitzua ere, dagozkion laguntzak ordaintzen jarraituko da.

Bestalde, egungo osasun-krisiak Hezkuntza Sailaren jarduera eskatzen duela laguntza horiek **zuzenean familietara** iritsi daitezten eta, horrela, azken helburua bete ahal izan dezaten.

Horregatik, eskola-jantokirako laguntza jasotzen duten familiek zuzenean jaso ahal izan dezaten, honako jarraibide hauek hartzen dira:

INSTRUCCIÓN DE LA VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS EN RELACIÓN AL ABONO DEL IMPORTE DE LAS BECAS DE COMEDOR, CORRESPONDIENTE AL PERIODO DE SUSPENSIÓN DE LA ACTIVIDAD ESCOLAR PRESENCIAL

La convocatoria de ayudas al estudio para la escolarización de alumnado de niveles no universitarios tiene como objetivo compensar las limitaciones o desequilibrios existentes para acceder a la educación en situación de igualdad. Así, entre los componentes objeto de posible ayuda, se encuentra el del servicio de comedor escolar, para el alumnado de niveles de enseñanza obligatorios y de necesidades educativas especiales que haga uso del mismo.

La situación de emergencia sanitaria creada por el Covid-19 ha ocasionado la suspensión temporal de la actividad escolar presencial de los centros educativos y, en consecuencia, la suspensión de la prestación del servicio de comedor escolar.

En aras a atender a las familias que pudieran verse más afectadas, durante el período de suspensión del servicio de comedor se **mantendrán dichas ayudas**.

Esto es, durante la suspensión de la actividad escolar presencial, y por lo tanto, suspensión del servicio de comedor, se mantendrá el abono de las correspondientes ayudas.

Por otro lado, la actual crisis sanitaria, hace precisa la actuación del Departamento de Educación para que dichas ayudas lleguen **directamente a las familias**, y puedan así cumplir su objetivo final.

Es por ello que, a los efectos de que las familias receptoras de ayuda para comedor escolar puedan recibir directamente la misma, se adoptan las siguientes instrucciones:



- Kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxe publikoen kasuan, zeinetan laguntzak zuzenean ikastetxeei sartzen baitzaizkie, horiek zuzenean ordainduko dizkiete dagozkien laguntzak familia esleipendunei, **ahalik eta lasterren**, eta banku-transferentziaren bidez. Horretarako, sail honek ikasle onuradunen zerrenda eta familiei ordaindu beharreko zenbatekoa emango dizkie ikastetxeei.

- Berdin jokatu da ikastetxeei laguntza kudeatzeko baimena eman dieten familien kasuan.

Ordaindu beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da: zerbitzua etenda dagoen bitartean jantokira joateko aurreikusitako egunen kopurua bider diruz lagundutako eguneko prezioa.

- En el caso de los centros docentes públicos, con servicio de comedor en régimen de gestión directa, en los que las ayudas se ingresan directamente a los centros, éstos abonarán las ayudas correspondientes directamente a las familias adjudicatarias, a **la mayor brevedad**, y a través de transferencia bancaria. A tal efecto, por parte de este Departamento, se facilitará a los centros la relación de alumnado beneficiario así como el importe a abonar a las familias.

- De igual manera se actuará en el supuesto de las familias que hayan autorizado a los centros educativos la gestión de la ayuda.

La cuantía a abonar será la cantidad resultante de multiplicar el número previsto de días de asistencia al comedor durante el período de suspensión del servicio, por el precio diario subvencionado.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 25ean

Olatz Garamendi Landa



Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea  
Viceconsejera de Administración y Servicios